XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

3445

137/2012 DEKRETUA, uztailaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2012. urterako aurrekontuko 9311 Programan (Europar Batasunarekiko Finantza-harremanak) diru-sarrerak lortu direla-eta, 4421 Programan (Ingurumenaren Babesa) 277.923,60 euroko kredituak gaitzen dituena.

Europako Batzordetik datozen diru-sarrera gehigarriak –277.923,60 euro– lortu dira, LIFE+ programaren esparruan, Natura eta Biodibertsitatea delako ildoan, honako proiektu honetarako: «Euskal Autonomia Erkidegoko estuarioetan Europarako interesa duten habitatak leheneratzea».

Hortaz, aipatutako kredituak gaitzeko eskatu du Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak.

Horregatik, dekretu honen bidez, kredituok gaitzen dira Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartu zuen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuko 82. eta 83. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko uztailaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2012ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4421	714.00	277.923,60

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian, kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	741.49	277.923,60

Funtsak honako proiektu hau finantzatzeko erabiliko dira: «Euskal Autonomia Erkidegoko estuarioetan Europarako interesa duten habitatak leheneratzea».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko uztailaren 17an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.